

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### 2/2021 Foru Araua, urtarrilaren 29koa, 2021. urterako zerga neurriei buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko urtarrilaren 29an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

2/2021 Foru Araua, urtarrilaren 29koa, 2021. urterako zerga neurriei buruz.

#### ZIOEN AZALPENA

Foru arau honen xedea da zenbait aldaketa egitea Arabako zerga sistemako oinarritzko araudian eta zerga batzuetan.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez, neurri hauek dira nabarmentzekoak: nekazari gazteen lehen instalaziorako jasotako laguntza publiko jakin batzuen egozpenaren erregela berezia aldatzea eta bi hilez behingo ordainketa zatikatuak kentzea.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, bategiteen araubide berezia aldatzen da.

#### 1. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

Lehenengoa. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan honako aldaketa hauek egiten dira (2020ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 9. artikulua 9. apartatuko bigarren paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“Halaber, salbuetsita daude doktoratu aurretik prestakuntza jasotzen ari diren langile ikertzaileen estatutua onesten duen martxoaren 1eko 103/2019 Errege Dekretuak ezarritako eremuan ikerketarako ematen diren bekak, publikoak zein aurreko paragrafoan aipatutako irabazteko asmorik gabeko erakundeek eta banku fundazioek ematen dituztenak, bai eta ikerketa xede duten erakundeek administrazio publikoan zerbitzuko funtzionario eta gainerako langileei eta unibertsitateetako irakasleei eta ikertzaileei ematen dizkietenak ere.”

Bi. 9. artikulua 31. zenbakia honela geratzen da:

“31. Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko uztailaren 28ko 12/2016 Legearen xedapenen arabera aitortutako kalte ordainak.”

Hiru. 57. artikulua 1. apartatuko b) letra honela geratzen da:

“b) Jarduera ekonomikoaren etekinak Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan ezarri den bezala egotziko dira, foru arau honetan edo bestelako arauen bidez ezartzen diren kasu bereziak gorabehera.

Hala ere, nekazari gazteen lehen instalaziorako Espainiako Landa Garapenerako Esparru Nazionalean aurreikusitako laguntza publikoak lau zatitan egotzi ahal izango dira: laurden bat jasotzen diren zergaldian eta laurden bana hurrengo hiruretan.”

Lau. 57. artikulua 2. apartatuko k) letra aldatzen da, eta l) letra gehitzen zaio apartatu horri; honela geratzen dira:

“k) Laguntza publikoetatik eratorritako ondare irabaziak kobratzen diren zergaldian zenbatuko dira, l) letran aurreikusitako aukera gorabehera.”

“l) Espainiako Landa Garapenerako Esparru Nazionalean nekazari gazteen lehen instalazioarako aurreikusitako laguntza publikoak, baldin eta nekazaritzako sozietate enpresen kapitalleko partaidetza eskuratzeko erabiltzen badira, lau zatitan egotzi ahal izango dira: laurden bat jasotzen diren zergaldian eta laurden bana hurrengo hiruretan.”

Bigarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan honako aldaketa hauek egiten dira (2021eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 9. artikulua 21. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“21. Zerbitzu publikoen funtzionamenduak pertsonengan eragindako kalte fisiko, psikiko edo moralengatik administrazio publikoek emandako kalte ordainak, baldin eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean jasotako prozeduren arabera ezarritakoak badira.”

Bi. 17. artikulua 1. apartatuko a) letra honela geratzen da:

“a) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetako bazkide babesleek ordaindutako kontribuzioak edo ekarpenak eta, orobat, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Plan eta Funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginean ezarritako pentsio planen sustatzaileek edo Europako Parlamentuak eta Kontseiluak enpleguko pentsio funtsen jardueri eta ikuskapenari buruz 2016ko abenduaren 14an emandako 2016/2341 (EB) Zuzentarauan ezarritako enpresa sustatzaileek egindakoak.”

Hiru. 18.a).3. artikulua b') letra honela geratzen da:

“b') Pentsio planen onuradunek jasotako prestazioak, barnean direla azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Plan eta Funtsak arautzen dituen Legearen testu bategineko 8. artikulua 8. apartatua jasotako kasuetan modu aurreratuan erabiltzen diren kopuruak, bai eta enpleguko pentsio funtsen jardueri eta ikuskapenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauan araututako pentsio planetatik jasotakoak ere.”

Lau. 60. artikulua 2. apartatuko e) letra honela geratzen da:

“e) Beren zenbateko osoan, borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetako bazkide babesleek eta pentsio planen sustatzaileek ordaindutako kontribuzioak, eta enpleguko pentsio funtsen jardueri eta ikuskapenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauan araututako enpresa sustatzaileek ordaindutako kontribuzioak, bai eta enpresaburuek pentsioengatik konpromisoei aurre egiteko ordaindutako zenbatekoak ere, Pentsio Plan eta Funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginaren lehenengo xedapen gehigarrian eta legea garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat etorritik. Eta enpresaburuek mendetasun aseguruengatik ordaintzen dituzten kopuruak ere bai.”

Bost. 70.1.3. artikulua lehenengo paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“3º. Enpleguko pentsio funtsen jardueri eta ikuskapenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauan araututako pentsio planetara partaideek egindako ekarpenak, enpresa sustatzaileek egindako kontribuzioak barne, betekizun hauek betez gero:”

Sei. 70. artikulua 6. apartatuko bigarren paragrafoa honela geratzen da:

“Apartatu honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko honako hauetara egiten diren ekarpenei eta kontribuzioei: enpleguko pentsio planak; enpresen gizarte aurreikuspeneko planak; enpleguko pentsio funtsen jardueri eta ikuskapenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauan araututako pentsio planak; gizarte aurreikuspeneko mutualitateak; laneko gizarte aurreikuspeneko erakundeak. Gainera, artikulua honetako 3. apartatua eta foru arau honen 72. artikulua aipatzen diren ekarpenei ere ez zaie aplikatuko.”

Zazpi. 107. artikulua 1. apartatuko c) letrako azken aurreko paragrafoa honela geratzen da:

“Europar Batasuneko beste estatu kide batean helbideratutako pentsio funtsak, Espainiako legediaren peko enpleguko pentsio planak garatzen badituzte, enpleguko pentsio funtsen jarduerari eta ikuskapenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauan ezarritakoaren arabera, edo, egoki bada, haien erakunde kudeatzaileek atxikipena eta konturako sarrera egin beharko dituzte Espainian egiten dituzten eragiketetan.”

Zortzi. 110. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek ordainketa zatikatuak egin behar dituzte zerga honen kontura (araudian zehaztuko da nola).

Ordainketa zatikatu horiek hiru hilean behin edo sei hilean behin egin ahal izango dira, erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera.”

## 2. artikulua. Sozietateen gaineko zerga

Lehenengoa. Honela geratzen da Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 60. artikulua 5. apartatuaren lehenengo paragrafoa (2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondorioak):

“5. Zergadunaren errenten artean egoitza Espainiako lurraldetik kanpo duen erakunde baten dibidenduak edo mozkin partaidetzak badaude, hain zuzen ere Espainiako Erresumak nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena (informazioa trukatzeko klausularekin) sinatuta ez daukan herrialde batean egoitza duen erakunde batenak, zergadunak nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria aplikatzea hauta dezake (kenkari hau ezin da bateratu artikulua honetako aurreko apartatuetako kenkariarekin): dibidenduei edo mozkin partaidetzei dagokien zerga oinarriaren ehuneko 14.”

Bigarrena. Aldaketa hauek egiten dira Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan (2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. Apartatu bat gehitzen zaio 54. artikuluari, 11. apartatua, eta honela geratzen da:

“11. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/EB Zuzentarauan (inbertsio funts alternatiboen kudeatzaileei buruzkoa, eta aldatzen dituena 2003/41/EE Zuzentaria eta 2009/65/EE Zuzentaria, eta 1060/2009 (EE) Erregelamendua eta 1095/2010 (EB) Erregelamendua) jasotako inbertsio alternatiboko funts motetatik edozeinetan eskubide ekonomiko bereziak ematen dituzten partaidetzen, akzioen edo bestelako eskubideen diru sarrerak, baldin aplikatzekoa bazaie Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 56 ter artikuluan xedatutakoa, zerga oinarrian txertatuko dira, haien administratzaileei, kudeatzaileei edo langileei esleitzeari dagozkion gastuak erregistratu behar diren neurrian.”

Bi. 60. artikulua 5. apartatuaren azken paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“Apartatu honetan xedatutakoa ez da aplikatuko kasu hauetan: dibidenduei edo mozkin partaidetzei foru arau honetako 33. artikuluan ezarritakoa aplikatu ahal bazaie; dibidenduak edo mozkin partaidetzak foru arau honetako 33. artikuluko 1. apartatuko c) letrako azken paragrafoan xedatutakoari dagokionez konputatzen ez den jarduera batean sortu badira; edo dibidenduak edo mozkin partaidetzak foru arau honetako 48. artikuluko 2. apartatuko i) letran aipatzen diren jardueretako batek sortu baditu.”

Hiru. 60. artikulua 6. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da idatzita:

“6. Zerga oinarrian foru arau honetako 48. artikuluan ezarritakoaren arabera egoiliar ez diren erakundeek lortutako errenta positibo batzuk sartu behar dituzten zergadunek honako hauek kendu ahal izango dituzte kuota osotik:

a) Zerga hau bezalako edo antzeko zergak edo kargak, benetan ordainduak, hain zuzen ere zerga oinarrian sartutako errenta positiboari dagokion zatia.

Benetan ordaindutzat joko dira egoiliar ez den erakundeak eta haren partaidetzako sozietateek ordaindutako zergak, bai eta, era berean, haien partaidetza zuzena dutenek ordaindutakoak, eta horrela hurrenez hurren, hain zuzen ere zerga oinarrian sartutako errenta positiboari dagokion zatia, betiere partaidetza horiek ehuneko bostetik beherakoak ez badira, edo ehuneko hirutik beherakoak baldin partaidetzako sozietatearen akzioek antolatutako bigarren mailako merkatu batean kotizatzen badute, eta betetzen badute foru arau honek 33. artikulua 1. apartatuko a) letran ezarritako betekizuna, partaidetzari eutsi beharreko denborari dagokionez.

b) Atzerrian dibidenduak edo mozkin partaidetzak banatzeagatik benetan ordaindutako zerga edo karga, bai zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen baten arabera bai herri edo lurralde hartako legeriaren arabera, hain zuzen ere lehendik zerga oinarrian sartutako errenta positiboari dagokion zatia.

Erakunde ez egoiliarren kapitaleko partaidetza zeharkakoa bada, beste erakunde ez egoiliar baten edo batzuen bitartez, azken horrek edo horiek benetan ordaindutako zerga hau bezalako edo antzeko zerga edo karga kenduko da, hain zuzen ere lehendik zerga oinarrian sartutako errenta positiboari dagokion zatia.

Kenkari hauek errenta positiboa zerga oinarrian sartu zen zergaldian ez ezik zergak beste zergaldi batzuetan ordaindu direnean ere aplikatuko dira.

Zerga paradisutzat jotzen diren herrialde eta lurraldeetan ordaindutako zergek ez dute kenkaririk sortuko."

Lau. 101. artikulua 2. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da idatzita:

"2. Ondoko eragiketak zatiketatzat hartuko dira:

a) Likidaziorik gabe desegiteagatik erakunde batek lehendik dauden edo berriak diren bi erakunderi edo gehiagori eskualdatzea bere ondasun sozial guztia, hain zuzen ere bere bazkideei eratzikiz modu proportzionalean ekarpena jasotzen duten erakundearen kapital sozialaren baloreak eta, hala egokitzen denean, diru konpentsazioa: balio nominalaren ehuneko hamar gehienez, edo, balio nominalik ez badago, balore horien balio nominalaren baliokide bat, horien kontabilitatetik eratorria, hain zuzen.

b) Erakunde batek bere sozietate ondarearen zati bat edo batzuk (jarduera adarrak) bereiztea eta denak batera eskualdatzea beste erakunde bati edo gehiagori (aurretik daudenak zein sortu berriak), jarduera adar bat gutxienez bere esku mantenduta, edo partaidetzak beste erakunde batzuen kapitalean, haietako kapital sozialaren gehiengoa emango diotenak, eta horren trukean beste erakundearen kapital sozialaren baloreak eta, bidezkoa denean, diru konpentsazioa jasotzea (aurreko letran ezarri den bezala); baloreok bere bazkideen artean banatu behar ditu bakoitzaren partaidetzaren arabera, sozietatearen kapitaletik eta erreserbetatik bidezkoa zenbatekoa kenduta.

c) Erakunde batek bere sozietate ondarearen zati bat bereiztea, hain zuzen ere beste erakunde batzuen kapitalaren partaidetzak, kapital horietan gehiengoa ematen diotenak, eta beste erakunde bati (aurretik dagoena zein sortu berria) eskualdatzea, bere ondarean mantenduta gutxienez beste erakunde baten edo batzuen kapitalean gehiengoa ematen dioten partaidetzak edo jarduera adar bat, eta horren trukean erakunde eskuratzailaren kapital sozialaren baloreak eta, bidezkoa denean, diru konpentsazioa jasotzea (aurreko a) letran ezarri den bezala); baloreok bere bazkideen artean banatu behar ditu bakoitzaren partaidetzaren arabera, sozietatearen kapitaletik eta erreserbetatik bidezkoa zenbatekoa kenduta."

Bost. 105. artikulua 1., 2. eta 3. apartatuetako lehenengo paragrafoa eta 5. apartatua honela geratzen dira idatzita:

"1. Balore trukeetan sortzen diren errentak ez dira sartu behar zerga honen, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zerga oinarrian, baldintza hauek betez gero:"

“2. Balore trukea egiten duen erakundeak jasotako baloreak ekarpena egin duten bazkideen ondarean egon direnean eduki duten balioan baloratuko dira, zerga honen, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren arauen arabera. Nolanahi ere, merkatuko balio normala txikiagoa bada, azken horren arabera baloratuko dira.”

“3. Bazkideek jasotako baloreak, zerga ondorioetarako, emandako baloreen balioan baloratuko dira, zerga honen, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren arauen arabera zehaztuta, dagokionaren arabera. Balorazioari dirutan eman edo jasotako konpentsazio osagarriaren zenbatekoa gehitu edo kenduko zaio.”

“5. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren edo zerga honen zerga oinarrian sartu behar dira zerga paradisutzat jotzen diren herrialde eta lurraldeetan helbideratuta edo finkatuta dauden erakundeek parte hartzen duten eragiketetan lortzen diren errentak, edo haien bitartez eskuratutakoak.”

Sei. 106. artikulua 2. eta 4. apartatuak honela geratzen dira:

“2. Bategiteetan, irenspenetan eta zatiketetan (osoak zein partzialak) jasotako baloreak, zerga ondorioetarako, emandako baloreen balioan baloratuko dira, zerga honen, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren arauen arabera zehaztuta, dagokionaren arabera. Balorazioari dirutan eman edo jasotako konpentsazio osagarriaren zenbatekoa gehitu edo kenduko zaio. Jasotako baloreen eskuraketa data emandakoena bera izango da.”

“4. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren edo zerga honen zerga oinarrian sartu behar dira zerga paradisutzat jotzen diren herrialde eta lurraldeetan helbideratuta edo finkatuta dauden erakundeek parte hartzen duten eragiketetan lortzen diren errentak, edo haien bitartez eskuratutakoak.”

Zazpi. 107 bis artikulua gehitzen da; hona testua:

“107 bis artikulua. Erakundeen funts propioetan edo kapitalean partaidetzak eskuratzera bideratutako finantza gastuen kenkaria mugatzea.

Foru arau honen 25 bis artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, edozein erakunde motaren kapitaleko edo funts propioetako partaidetzak eskuratzera bideratutako zorretatik eratorritako finantza gastuak kengarriak izango dira, baina honako muga gehigarri hau izango dute: eresketa hori egin zuen erakundearen beraren mozkin operatiboaren ehuneko 30. Dena den, mozkin operatibo horretan ez da sartuko eresketa hori egin eta hurrengo lau urteetan harekin bat egiten duen edozein erakunderi dagokiona, bategite horretarako zerga erregimen berezi hau aplikatzen bada. Finantza gastu horiek hartu beharko dira kontuan, halaber, aipatutako 25 bis artikulua 1. apartatuan adierazitako muga.

Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzearen ondoriozko finantza gastu ez kengarriak kendu ahal izango dira hurrengo zergaldietan, betiere artikulu honetan eta foru arau honen 25 bis artikulua 1. apartatuan ezarritako muga kontuan hartuta.

Artikulu honetan ezarritako muga ez da aplikagarria izango erakundeen funts propioetako edo kapitaleko partaidetzak eskuratu diren zergaldian, baldin eta eskuratze prezioaren gehieenez ere ehuneko 70 zorrarekin finantzatzen bada. Era berean, muga hori ez da aplikatuko hurrengo zergaldietan, betiere zor horren zenbatekoari, eskuratu den unetik, honako zenbateko hau kentzen bazaio, gutxienez: hurrengo zortzi urteetako urte bakoitzeko zati proportzionalan dagokion zatia, zorra eskuratze prezioaren ehuneko 30era iritsi arte.”

Zortzi. 108. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da idatzita:

“108. artikulua. Zergen arloko eskubideetan eta betebeharretan subrogatzea eta errentak egozte.

1. Erakunde eskuratzailerari eskualdatuko zaizkio erakunde eskualdatzailearen zerga eskubide eta betebeharrak, 101. artikuluan aipatutako eragiketek titulu unibertsaleko ondorengotza ekartzen dutenean.

Erakunde eskuratzailerak bere gain hartuko du zerga onurak edukitzen jarraitzeko edo erakunde eskualdatzaileak edukitakoak sendotzeko beharrezkoak diren beharkizunak betetzea.

2. Oinordetza unibertsala ez bada, eskualdatutako ondasun eta eskubideen zergen arloko eskubideak eta betebeharrak bakarrik eskualdatuko dira.

Erakunde eskuratzailerak bere gain hartuko du erakunde eskualdatzailearen zerga pizgarrien ondoriozko betekizunak bete beharra, hain zuzen ere eskualdatutako ondasunei eta eskubideei dagozkienak.

3. Erakunde eskuratzailerari eskualdatuko zaizkio erakunde eskualdatzailean konpentsatzeko dauden zerga oinarri negatiboak, betiere honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:

a) Erakunde eskualdatzailea azkentzea.

b) Erakunde eskualdatzailean konpentsatzeko dauden zerga oinarri negatiboak sortu dituzten emaitzak izan dituen jarduera adar bat eskualdatzea. Kasu horretan, eskualdatutako jarduera adarrak sortutako eta konpentsatzeko dauden zerga oinarri negatiboak eskualdatuko dira.

Erakunde eskuratzailerak erakunde eskualdatzailearen kapitaleko partaide denean edo hura azken horri dagokionez foru arau honen 42. artikuluan ezarritako kasu batean dagoenean, konpentsatu ahal den zerga oinarri negatiboa bazkideenak eta edozein titulurengatik egindakoak diren eta partaidetza horri edo loturazko erakundeek erakunde eskualdatzailearen gainean dituzten partaidetzei dagozkien ekarpenen balioaren eta balio fiskalaren arteko diferentzia positiboaren zenbatekoan txikituko da.

Inolaz ere ezingo dira konpentsatu erakunde eskualdatzaileak jasandako galerei dagozkien zerga oinarri negatiboak, baldin eta galerok erakunde eskuratzailerak erakunde eskualdatzailearen kapitalean edo beste erakunde batek erakunde hartan duten partaidetzaren narriadura eragin badute, foru arau honetako 42. artikuluan aipatzen den lotura dutenean.

4. Foru arauetan edo Espainiako legeetan ezarritakoaren arabera sortutako eskubideak eta betebeharrak soilik subrogatu ahal izango dira.”

Bederatzi. 111. artikulua honela geratzen da:

“111. artikulua. Diruzkoak ez diren ekarpenak.

1. Kapitulu honetan ezarritako araubidea hurrengo zerrendako baldintzak betetzen dituzten diruzkoak ez bestelako ekarpenei aplikatuko zaie, zerga honen, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunak hautatuz gero; hona hemen baldintzak:

a) Ekarpena jasotzen duen erakundeak egoitza Espainiako estatuan edukitzea edo bere jarduerak Espainiako estatuan egitea ondasunak atxikitzen zaizkion establezimendu iraunkor baten bitartez.

b) Behin ekarpena egin ondoren, zerga honen, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadun den ekarleak ekarpena jasotzen duen erakundearen funts propioetan gutxienez ehuneko bosteko partaidetza edukitzea (edo ehuneko hirukoa, partaidetzako sozietate horrek antolatutako bigarren mailako merkatu batean kotizatzen badu).

c) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo Espainian establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek akzioak edo sozietateko partaidetzak ekartzen badituzte, a) eta b) letretan ezarritako betekizunetaz gainera honako hauek ere bete behar dira:

a') Ordezkatzen duten kapital sozialaren erakundea ezin da egon Espainiako edo Europako interes ekonomikoko taldeen araubide berezian, ez eta aldi baterako enpresa elkartearen araubide berezian ere (foru arau honetako VI. tituluko III. kapituluaren ezarri da), eta ezin da izan ondare sozietatea, foru arau honetako 14. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b') Partaidetza erakundearen funts propioen ehuneko bost izan behar da gutxienez (edo ehuneko hiru, partaidetzako sozietateak antolatutako bigarren mailako merkatu batean kotizatzen bada).

c') Ekarpina egin duenak etengabe eduki behar izan ditu ekarpina gauzatzen den agiri publikoaren dataren aurreko urtean.

d) Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren edo Europar Batasuneko estatu kideren batean bizi diren ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek c) letran azaldutakoak ez beste ondare elementu batzuk ekarri badituzte, elementu horiek Merkataritza Kodearen edo legeria baliokidearen arabera kontabilitatea duten jarduera ekonomikoei atxikita egotea.

2. Kapitulu honetan ezarritako araubidea pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren eta Europar Batasuneko estatu kideetan bizi diren ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek egiten dituzten jarduera adarren ekarpinei ere aplikatuko zaie, kontabilitatea Merkataritza Kodearen edo legeria baliokidearen arabera eginez gero.

3. Ekarrirako ondare elementuen balorazioa ezin da izan zerga ondorioetarako merkatuko balio normala baino gehiago."

Hamar. 114. artikuluan 4. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da idatzita:

"4. Kapitulu honetan ezarritako araubidea ez zaie aplikatuko helburu nagusitzat zerga iruzurra edo zerga itzurpena duten eragiketei.

Ondorio horietarako, eragiketak horrelakotzat joko dira Arabako Zergei buruzko Foru Arauko 14. eta 15. artikuluetan ezartzen dena aplikatzen bazaie. Hain zuzen ere, araubidea ez da aplikatuko eragiketa baliozko arrazoi ekonomikoengatik egin beharrean (hala nola, eragiketan parte hartu duten erakundearen jarduerak berregituratzea edo arrazionalizatzea), zerga onurak lortzeko helburu soilarekin egiten bada (ezinbestekoa da eragiketa apartatu honetako aurreko paragrafoan aipatutako kasuetako batean egotea).

Apartatu honetan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz zerga araubide berezia osorik edo haren zati bat aplikatzen ez bada, lortutako zerga onuraren ondorioak baino ez dira kenduko."

Hirugarrena. Sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan aldaketa hauek egiten dira (2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 22. artikuluan 1. apartatua honela geratzen da:

"1. Zordunen kaudimengabeziaren ondorioz kredituak narriatzeak dakartzan galerak kengarriak izango dira, baldin eta zerga sortzen den unean inguruabar hauetako bat gertatzen bada:

a) Betebeharra iraungi denetik sei hilabete pasatu izana.

b) Zorduna konkurtso egoeran egotea.

c) Zorduna edo, erakundea izanez gero, haren administratzaile edo ordezkarietako bat ondasun altxamenduen delituagatik auziperatuta egotea.

d) Betebeharra bide judizialek eskatu izana, edo auzi judizial edo arbitrajeko prozeduraren batean egotea, eta kobratzeko horien ebazpena behar izatea.

Aurrekoa gorabehera, zordunen kaudimengabeziaren ondorioz kredituak narriatzeak dakartzan galerak kengarriak izango dira, baldin eta b) eta d) letretan jasotako inguruabarrak zergaren autolikidazioa aurkezteko epea hasi aurretik gertatzen badira."



Bi. d) letra gehitzen zaio 33. artikulua 3. apartatuari; hona testua:

“d) Dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak, haien banaketak fiskalki kengarria den gastua eragiten badio erakunde ordaintzaileari.”

Hiru. 41. artikulua 1. apartatuko b) letra honela geratzen da:

“b) Atzerrian dagoen establezimendu iraunkor batera lekualdatzen direnak, betiere lekualdatze horren ondorioz, haietatik eratorritako errentak ezin badira zergapetu Espainian.”

### **3. artikulua. Mikroenpresek edo enpresa txikiek garatutako ikerketa eta garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzea**

1. 2020an mikroenpresa edo enpresa txikia diren erakundeek garatutako ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan parte hartzen duten sozietateen gaineko zergaren zergadunek, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, foru arau horretako 64 bis artikuluan aurreikusitako kenkaria aplikatu ahal izango dute, bertan aurreikusitako baldintzetan, eta honako berezitasun hauekin:

a) Ez da aplikatuko Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 64 bis artikulua bigarren apartatuaren c) letraren a') eta b') letretan xedatutako betebeharra.

b) Ez da aplikatuko artikulua horren 5. apartatuko lehen paragrafoan aurreikusitako muga.

c) Artikulu horren 5. apartatuko bigarren paragrafoan aurreikusitako muga 1.000.000 eurokoa izango da proiektuko.

2. Aurreko apartatua xedatutakoa ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko proiektu hauei aplikatuko zaie:

a) 2020an hasitakoak.

b) 2021ean hasitakoak, baldin eta 64 bis artikuluko bigarren apartatuko d) letran aipatzen den finantzaketa kontratua 2020an formalizatu bada.

c) 2020a baino lehen hasitakoak, baldin eta finantzaketa kontratua COVID-19arekin lotutako zerga neurri berriak onesten dituen maiatzaren 12ko 6/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 10. artikulua laugarren apartatua xedatutako moduan aldatu bada.

3. Artikulu honetan araututako kenkaria establezimendu iraunkor baten bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek ere aplikatu ahal izango dute, baina eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 18ko 21/2014 Foru Araua aplikatu behar bazaie, eta baldin eta egoitza fiskala paradisu fiskaltzat edo tributaziorik gabekotzat jotzen den herrialde edo lurralde batean ez badute, bat etorri Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Araua Orokorren hamabosgarren xedapen gehigarriarekin.

4. Aurreko apartatuetan xedatutakoa 2021. urteari dagokionez ere aplikatuko da, honako urte aldaketa hauek kontuan hartuta:

a) 1. apartatua, 2020 aipatzen denean, 2021 ulertuko da.

b) 2. apartatuaren a) letran, 2020 aipatzen denean, 2021 ulertuko da.

c) 2. apartatuaren b) letran, 2021 eta 2020 aipatzen direnean, 2022 eta 2021 ulertuko da.

d) 2. apartatuaren c) letran, 2020 aipatzen denean, 2021 ulertuko da.

### **4. artikulua. Ondarearen gaineko zerga**

Ondarearen gaineko Zergaren martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauaren 5. Zazpi artikulua b) letra aldatzen da eta honela geratzen da (2021ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak):

“b) Pentsio planen partaideen eskubide finkatuak eta pensio planen onuradunen eskubide ekonomikoak, enpleguko pensio funtsen jardueri eta ikuskapenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauan aipatzen diren pensio planak barne.”



## XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Toki ogasunen testu bateginak baimentzea.

Arabako Batzar Nagusiek baimena ematen diote Arabako Foru Aldundiari 2021eko irailaren 30a baino lehen testu bateginak onesteko. Testu horiek behar bezala erregularizatuta, argituta eta harmonizatuta egon behar dira, eta honako foru arau hauek bildu behar dituzte:

- a) 41/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa, Toki Ogasunak arautzen dituen.
- b) 42/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarena.
- c) 43/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergarena.
- d) 44/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergarena.
- e) 45/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergarena.
- f) 46/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergarena.

Bigarrena. Aldatzea 12/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urriaren 6koa, onepena ematen diena COVID-19arekin lotutako premiazko zerga neurri gehigarriei, Arabako zerga sistema osatzen duten zerga jakin batzuetan.

2020ko urriaren 15etik aurrerako ondorioekin, aldatu egiten da euskarazko bertsioaren 2. artikuluko 2. apartatua:

“2. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 66. artikuluko 2. apartatuko seigarren paragrafoan jasotako hiru urteko epea zenbatzeko, enplegua sortzearen kenkaria aplikatzeari dagokionez, ez da kontuan hartuko 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldia, eta paragrafo horretan jasotako baldintza betetzat joko da.”

## AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean xedapen orokor hau, salbu ondorioak sortzen hasteko egun jakin bat esleituta duten arauak.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 29a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**